

Eibarko esaerak

Eibarko esakeren gai honek bere inguru egokia eskatzen dabenez, eibartarrez emotia izango dot onena.

Literatura gehiak ez ezik barruko gogoetak be bizkortzeko esaldi eta esakerak biharrezkuak dittugu. Gramatika soil hutsak bakarrik ez dau bizkortzen hizkuntza eta esparru itxiak be ez gizonaren gogua.

Guk be, zahartzaroruntz goiazen neurriak buruko makiñarixia martxan eta gogoratzen dittugun esakeretan aurkitzen doguz gauza bitxiak, pertsonen eta herrien psikologiaren erakusgarri. Gaurkoan Eibarren erabili izan dira holako muestra batzuk agertu gura neukez.

Sarri entzuna dogu alkar agurtzian ohitura dogun "Ondo?" esanaz zer datorren, plaentziarren erantzuna, era honetara:

— *Ondo?*

— *Askok nahi baiño hobeto.*

Alkarrizketan etorri leikianari aurria hartuz, erantzun horrek erakusten desku auzo herrikuen pikardia, eibartarrok merezi dogun neu-

rrian. Ze, gu beti gara palentziareri adarra jo nahirik.

Aldiz, eibartar bati saludo bera eitxian, hara zelan erantzungo daben:

— *Ondo?*

— *Ondo bai zeruan dagon atsua.*

Izan be, gure zaharrentzat, atsua, gizonik probatu bakua izaten zan. Eta lehenagoko abadien-tzat, hamar aginduetatik pekatu-rik larriena seigarren mandamentu-kua, pekatu mortala, beste hamarren aurretik ipintzen ebenez. Horregatik, atsuak, nahi ta nahiez, zerura.

Nortasun izakera markatzen dabe esakera politok. Berez harrua zanari barriz, bere ibilleraren jitxa, burua gora begirakua zanian, hola-kuentzat:

— *Han joiak Urtixa, burua atzera botata.*

Baiña aberats harruagaittik, bere dirutzaren eukixak putxontzi-tua, eukixa azaldu nahiak edonun

burua gorde ezinezkotzat baeukan:
—*Eukixan jaikixa* ebalá esaten zan.

Horraittiok, gure zaharrak etika zaindu biharrezkotzat euken. Lehelengo sozialista zan Akilino Amuategi "Txikillana" k bere diskursuetan sarri esaten ei eban: "Administratzeko, gizonik zintzue-na hautatu, baiña gero lapurra bali-tz lez zaindu". Toribio Etxebarriak sarri aipatutako esaldia, eta berak ondo betia. Ondokuak haren moduan zaindu izan baeben ez zan izango ustelkeririk; baiña hara hor Roldan edo ondotikuena eta jarraxan auzi-mauzirik eten bako kate luzia buztan ziri, guztiontzat kaltegarri. Gero gerokuak, eta GALek ekarri euskun galera.

Ez dogu alperrik beste esaldi hau:

*Ezer ez dagon lekuan
eskuak garbi,
zerbaitx dagon lekuan
begiak argi.*

Toribio Etxebarria zanaren ondrautasuna iñork ezin leike dudan ipini. Gizon zintzua eta moral garbikua. Maitte zittuan esaldi jatorrak eta *Ibiltarixanak* liburuaren 185-186 orrialdetan jaso zituen "Gure klasikuen esakerak" bertsoz ipinita. Izan be, esakeraz aberatsa dogu Eibarko euskera eta Toribiok jakin eban aberastasun horri probetxua ataritzen.

Heuretako bat, plantziarraren pikardiazkua:

*Munduko ondrauak zorrak,
zaharrak badira aztu!
ta barri diranian,
itxain arte zahartu!*

Lotsia be agertzen dau Kaitano Kareagaren filosofiaz:

*Lotsi' zenbat norberak
gitxiago euki,
ainbat geixago al emon
asko daukanari.*

Kaitakoren hori, nik igarkizun moduan entzuna neukan, era hone-tara: "Zer da gutxi daukanak asko daukanari emoten detsana? Lotsa".

Maltienpo-rena be ez da txarra:

*Ara zer pasatzen dan
oiñgo gizonekin,
danok begi ederrak
d' alkar ikusi eziñ.*

Aberats barriarena:

*Sasoí baten goziak
eta zer jango ez;
oiñ danetik nai ala,
gogu' nun danik b' ez.*

Mitin bixamonian gogoratua nonbaitx, Bart'ko mitiñekua izenburutzat daroiana, eta ez da lesiño txarra; baiña oindiñok be antzera jarraitzen dogu:

*Gaurko mundu zar onek
badau zer zuzendu;
ba, biargiñak gosiak
alperrak gizendu.*

*Ara leku askotako
sistema barrixa:*

*guzurra dabilela;
katigu egixa!*

*Beittu lengo legia
zertan dan geratu;
lapur aundixak gora
txikixak urkatu.*

Baiña, gaur egun, moral eta etika kontuan larriagorik bada. Agiri danez, asko dira heuren moduan penstsatzen ez dabena hiltzeko prest. Ez ahal dakixe esaera zaharrek diñuana: "Otsuak ez dabela

otsokirik jaten?". Ba, ikasi bihar leukie. Gainera, diferente pentsatzen dabena asko ikasten da, norberak pentsatzen dabena zuzenketak eitzeko. Batak bestiare-naz, guztiok pentsatu biharrezkua dogu; bestela, zelan konsegidu norbere buruarekin autokritiko izaten?

Ikasi eta goguan hartu eibartar-ron beste esakera hau: "Zeruretzat nahi ez dozuna, besteeri ez opa".

Juan San Martin